

# Tablet PCa

## ordenagailu eramangarren ordezkari

**Joana Mendiburu Garaia**

Elhuyar

**Mugikortasunaren zerbitzura, Microsoft-ek apunteak hartzeko liburuxka baten antza duen Tablet PCa merkaturatu du. Tablet PCaren elementurik erakargarriena teklatura ordezkatzeko duen boligrafo berezia da, eta eraginkortasunaren gakoa, berriz, Microsoft-ek espreski garatu duen Windows XP sistema eragilea.**



Toshibak diseinatu duen Tablet PCaren pantaila ardatz baten baitan biratzen da, aukeran, kaier-itxura edo ohiko ordenagailuarena hartzeko gisan.

ARTXIBOKO

LAN-MUNDUAN MUGIKORTASUNAREN IKUR DEN ORDENAGAILU ERAMANGARRIAK ASKO EBOLUZIONATU DU. Azken urteetan, gero eta txikiagoa eta arinagoa bihurtzen joan da, eta, orain, kableak baztertu eta pantaila digital batez hornitu dute. Azken berrikuntza hori da produktu berriaren erakargarritasun nagusia, boligrafo berezi bati esker erabiltzaileak kaier batean bezala hartzen baititu apunteak.

Tablet PC jarri diote izena produktu berriari eta, oraingoz, Toshiba, ViewSonic, Fujitsu-Siemens eta Ace enpresek ekoizten dute. Hala ere, etorkizun oparoa aurreikusi diote eta, datozen urteetan, hamalau enpresak eskainiko dituzte era horretako produktuak. Prezioak 2.000 eta 3.000 euro bitartekoak izango omen dira.

### **Sistema eragile propioa**

Ez da horrelako produktu bat merkatu-ratzen den lehen aldia, baina aurreko

saiakeretan haririk gabeko komunikazioen protokoloen bateragarritasun- ezak eta idazkera ezagutzeko estandar faltak merkatua ikaragarri mugatu izan dute. Oraingoan, Microsoft-ek Tablet PCentzat garatu duen Windows XP sistema eragileari esker, ez da horrelakorik espero. Gainera, ekoizle guztiek ekoizpen-baldintzen plegu zehatz bati jarraitu beharko diote bateragarritasun-arazo guztiak ekiditeko. Adobe, Corel eta SAP software-editoreek ere beren produktuak egokitu egingo dituztela jakinarazi dute.

Tableta guztiek Pentium III edo pareko prozesagailu batez, kristal likidozko eta 133 puntu hazbeteko pantaila elektromagnetikoaz, haririk gabeko komunikaziorako WiFi 802.11b interfazeaz eta USB eta FireWire atakez hornituta

*“sistema eragile propioa duenez, Tablet PCa orain arteko ordenagailu eramangarriak baino askoz eraginkorragoa izango dela diote adituek”*

egon beharko dute. Eta, gutxienez, lau orduko autonomia eduki beharko dute. Tablet PCek gaitasun handiko disko gogorra (gutxienez, 20 gigabyte) eta nahiko memoria bizi handia dute (256 Megabyte Fujitsu-Siemens-enak eta 1 Gigabyte Acer-enak). Windows XP sistema eragileari esker, orain arteko ordenagailu eramangarriak erabat gaindituko dituztela diote adituek.



Windows XP sistema eragileari esker, ez da fabrikatzaile baten eta besteren arteko bateragarritasun-arazorik espero.

## **Estrategia berria birus informatikoen aurka**

Ordenadoreak konektatuta daudenetik, birusek hedatzeko erabiltzen duten biderik zuzenena eta eraginkorrena posta elektronikoa da. Izan ere, birusak ordenagailua kutsatzean, postako zerrendan dauden helbide guztietara mezu kutsatua bidaltzen du eta, horrela, oso denbora gutxian ordenagailu asko kutsatzen ditu. Iazko Code Red birusak, esaterako, 300.000 ordenagailu kutsatu zituen egun-erdi batean.

Hewlett-Packard enpresako Matthew Williamson ikertzaileak birusen hedapenari buruzko ikuspegi berri bat du. Bere asmoa birusaren hedapena mantsotzeko sistema bat diseinatzea da. Horretarako, nahikoa da ordenagailua epe jakin batean ohikoa baino mezu gehiago bidaltzen ari dela ohartzean posta etetea edo gutxienez geldotzea.



ARTXIBOKOA

Diseinuari dagokionez, ekoizle guztiek antzeko proposamenak egin dituzte. Fujitsu-Siemens-ek, esaterako, lan egiteko ordenagailu finko bihurtzeko Tablet PCa diseinatu du; posizio bertikalean jar daiteke eta teklatu bat gehi dakioke.

*“Tablet PCak 2.000 eta 3.000 euro bitartean salduko dira eta, beraz, oraindik urte batzuk pasatuko dira merkaturan erabat hedatu arte”*

Toshibak diseinatu duen Tablet PCaren pantaila ardatz baten baitan biratzen da, aukeran, kaier-itxura edo ohiko ordenagailuarena hartzeko gisan.

## **Boligrafo erakargarria**

Erakargarritasunaren gakoa, dena dela, boligrafo elektronikoa da. Horri esker hartuko diren apunteak bere horretan gorde ahal izango dira edo beste aplikazio batzuetan integratu. Word formatura aldatzea ere posible izango da, nahiz oraindik letren ezagutza ez den hobezina.

Baina berrikuntza hori nahikoa izango ote da produktu berriaren merkaturazabaltzeko? Adituek diote ordenagailu eramangarrientzat garai ona dela, baina lehen erosleak enpresaburu, kargudun, komertzial eta oro har mugikortasun handia duten ofizioetan dihardutenak izango direla aurreikusi da. Gizartean gehiago hedatu arte urteak pasatuko dira, ordenagailu klasikoek baino dezente prezio altuagoa dutelako, batez ere. 